



GAIA: GSF PROTOKOLOAREN NAHITAEZKO BETE BEHARRA – Diziplina Batzordea

HELBIDEA: Lehiaketa Probintzialeko Taldeak dituzten klubak, epaileak, teknikariak eta kirolariak * **2.020-21** denboraldia

COVID-19ren egungo pandemiaren esparruan, eta gure kirolari guztien segurtasuna eta osasuna ahalik eta gehien babesteko asmoz (jokalariak, epaileak, teknikariak eta haien familia- eta gizarte-ingurunea), federazio honek [SASKIBALOIRA ITZULTZEKO PROTOKOLOA](#) onartu zuen 2020-09-28ko batzarrean, Covid-19ren aurrean.

Klub guztiek nahitaez bete behar dute protokolo hori, eta haiek arduratuko dira bertan ezarritako baldintza guztiak betetzeaz.

Federazio honek, antolatzen dituen lehiaketen arduraduna den aldetik, zorrotza izan behar du protokolo horretan ezarritako neurriak bete daitezen, eta, horregatik, GSFko kide guztiei (epaileei, teknikariei, jokalariei eta klubei) eskatzen diegu protokoloa betetzen ez badute idatziz jakinaraz diezaiotela Federazio honi, Diziplina Batzordeari helaraz diezaion.

Diziplina Batzordeak Euskal Federazioko Diziplina Araudiko dagozkion artikulua aplikatuko ditu, zehapen arin, larri edo oso larriekin, kasuaren arabera, eta, **besteak beste**, honako artikulua hauek aplikatuko ditu:

- 42. artikulua. Arau-hauste oso larriak dira.
- 45. artikulua. Arau-hauste arinak dira
- 29. artikulua.- Egoera astungarriak dira: a) Berrerorlea izatea

[Euskal Federazioko Arautegia](#) GSFko web orrian ikus daiteke.

Horren berri ematen dizuegu, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Donostian 2.020ko urriaren 9an